PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1.- LAGUNTZA TEKNIKOAREN XEDEA

1.1.- AGENTZIAKO Euskara Batzordeak, herrietako euskara zerbitzuen bidez, Oarsoaldean euskararen ezagutza eta, batez ere, erabilera sustatzeko hainbat proiektu jarriak ditu abian. Proiektu horiek gizarteratzeko komunikazio arloan aholkularitza lanak egin, komunikazio plana diseinatu eta komunikazio-euskarriak diseinatu eta argitaratzeko laguntza tekniko espezializatua kontratatzeko lehiaketaren preskripzioak finkatzea da Agiri honen helburua.

1.2.- Enpresa esleipendunak era koordinatuan jardun beharko du honakoekin:

a) AGENTZIAKO Euskara Batzordearekin.
b) AGENTZIAKO Komunikazio eta Kalitate Sailarekin, komunikazio arloan dituzten ezagutzak eta ekarpenak kontuan hartu eta bestalde, komunikazio irizpideei eta komunikazio politikari dagozkion kontuak bermatzen direla ziurtatzeko.
c) Eskualdeko udalen komunikazio sail edota kabineteekin, informazioa argitaratzeari dagokionez.

2.- IRAUPENA

Esleipena, printzipioz, bi urterako egingo da. Behin data horretara iritsita, kontratua beste urte batez luzatu ahal izango da, AGENTZIAK hala erabakitzen badu. Sektore Publikoko kontratuen Legearen 29.3 artikuluaren arabera, kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatu edo ez. Luzatzea erabakitzen badu, enpresaburuak ezinbestean onartu beharko du luzapena, betiere kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago ohartarazten bada. Ezin da luzapenik izan bi aldeen isil bidezko adostasunaren bidez.

3.- EGINKIZUNAK

3.1.- Enpresa esleipendunak ondoko proiektuen komunikazio arloa landu beharko du:

a) Euskararen Familia Bidezko Transmisioa.
b) Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko lerroa.
c) Haur eta gazteen aisialdia (horren barnean kirola).
d) Merkataritza-ostalaritza - Prezio berean, euskaraz eta HPSren egitasmo orokorrak.
e) Lan-munduaren euskalduntzea.
f) Helduen euskalduntze eta alfabetatzea.
g) Herritar berriei zuzenduriko komunikazio ekintzak.
h) Euskara Batzordeak erabaki litzakeen lan-ildo berriak.

3.2.- Proiektu horiei loturiko euskarri eta produktuak honako hauek dira:

Irrati-tarte boladak

- Beherapen sasoiko irrati tartearen gidoia (20-30''), grabaketa eta astebeteko irrati tarte bolada.
- Guraso euskaldunei zuzenduriko irrati tartearen gidoia, grabaketa eta hamar eguneko emisioa. Gero beste herrien ekarpenekin osatzen dugu hilabete osokoa.

Markesinetako biniloak

- *Ongi etorri euskarara* etorri berriei zuzenduriko sentiberatzearen barnean binilozko euskarriak (80x192cm) 14 ale.
- *Euskaraz barra-barra* kanpaina edo Eskatu, eskaini euskaraz kanpainarako 14 ale.

Esku-orriak

- *Eskatu, eskaini kirol jarduerak euskaraz* (ele bietan 200, euskaraz 300 paperean) eta euskarri digitalean.
- *Ongi etorri euskarara*, etorri berriei zuzenduriko sentiberatzearen barnean esku-orriak lau hizkuntzatan (4.000 ale paperean).
- *Eskolatik lanera* egitasmoko esku orriak berritzea (1.000 ale).
- *Kuxkuxeroak* saioetako tarjetoiak (150 ale bolada bakoitzeko)

Kartelak-Kanpaina irudiak

- *Kuadrillategi*ko matrikulazioko hiru kartel; KTG (100ale), KTG 2.0 (50ale) eta Faktoria (50ale)
- *Prezio berean, euskaraz*, gremiokako lanketaren irudia eta kartelak (120 ale).
- *Euskararen paparazziak argazki lehiaketa*ren irudia eta kartela (120 ale).
- Errenta aitorpena euskaraz kanpainako kartelak (120 ale).

Boletoak

- *Errenta aitorpena euskaraz* kanpainako boletoak (100 aleko 10 talonario).

Orri markatzaileak

- *Euskarazko produktuen katalogoko* orri markatzaileak diseinatu eta inprimatu (8.500ale).

Formularioak

- *Kuadrillategi*ko matrikulazioko formularioa.
- *Errenta aitorpena euskaraz* kanpainako formularioa.
- *Euskararen paparazziak argazki lehiaketa*ko formularioa.

Bideoak (laburrak, 60')

- *Eskatu, eskaini kirol jarduerak euskaraz* lanketako bideoa(k).
- *Kuadrillategi*ko ekintzetako bideoa; irteerakoa edo gau festakoa.
- *Eskolatik lanera* egitasmoan praktiketan ari diren ikasleen iritziekin bideoa.
- *Guraso gara!* bideo berria egitea (4-5').
- *Enpatikonomia/Oarsoarrak sariak*(kronika bideoa 60')
- Beste bi bideoko koltxoia (*Euskaraz barra-barra*rako edo Ongi etorri euskarara etorri berrien lanketarako).
- Errekurtsoak grabatu urtean zehar.

Merchandising objektuak

- Merkataritza ostalaritzako establezimenduentzako objektuak (Establezimendu bakoitzerako 30. Gremioaren arabera aldakorra). Gehienez 60 establezimendu 1.800 ale.

Euskarri bereziak

- Merkataritza-ostalaritzako gremiokako lanketaren barnean euskarri bereziak egin izan dira establezimenduetan jartzeko: lanpasak, produktuen zerrendak jartzeko pvcko euskarriak, *Ehun egun, ehun hitz* hiztegi-egutegiak, prezioak jartzeko txartelak…
- *Motxian Eby* edo *Asmazank* lehiaketaren oinarri digitalak eta komunikazio beharrak.

Ekitaldiak

- *Oarsoarrak Euskararen Sariak* ekitaldiaren komunikazio beharrak: sarrerak, sariak, ekitaldiaren pantaila(k)… Edo *Enpatikonomia jardunaldia*ren komunikazio beharrak, euskarriak… Urte batean bat egiten da eta hurrengoan bestea.

Solasaldiak

- *Kuxkuxeroak* saioak kudeatzea maiatzeko eta azaroko lau ostiraletarako antolatuz.

3.3.- Proiektu horien komunikazio arloa lantzeko, helburu hauek hartuko dira kontuan beti:

a) Plan osoaren batasuna, koherentzia, logika eta identifikazioa zaintzea.
b) AGENTZIAKO Komunikazio Sailarekin elkarlanean prentsako presentziaren jarraipena egitea.

3.4.- AGENTZIAKO Euskara Batzordeari laguntza teknikoa emateko eginkizunak batzordearen beharren arabera gauzatuko dira eta batzorde horrek Oarsoaldean euskararen ezagutza eta, batez ere, erabilera sustatzeko diseinaturiko egitasmoei loturik egongo dira.

4.- PREZIOA

Enpresa lizitatzaileek eskainiko duten prezioan gastu guztiak sartu beharko dira: aholkularitza eta koordinazio lana, euskarri guztien (irrati-tarteak barne) diseinua nahiz sormen lana eta inprenta gastuak. Hau da, euskarri grafiko guztiak barne dira (esku-orriak, kartelak, objektuak eta abar, eta halaber, barne dira bi irrati-tarte bolada, laburra bata eta luzea bestea). Ez dira barne prentsa idatziko balizko iragarkiak, telebista bidezkoak edota internet bidezkoak.

5.- ORDAINKETA MODUA

Hau izango da enpresa esleipendunak emango dituen zerbitzuak ordaintzeko modua:

a) Kontratuaren urteko zenbateko osoa (BEZ barne) lau zatitan ordainduko da; hiru hilean behin faktura bat aurkeztuta.

6.- HIZKUNTZA-BALDINTZAK

6.1.- Enpresa lizitatzaileak euskara maila ona (C1 maila) duten giza baliabideak dituela egiaztatu beharko du nahitaez. Lan-harremanak euskaraz gauzatuko direnez, egitasmo hauetan lanean ariko diren pertsonek ahozko zein idatzizko betebeharrak izango dituztenez, bi trebetasunetan euskara maila ona (C1 maila) izango dute. Lan-hizkuntza, beraz, ahoz zein idatziz, euskara izango da.

6.2.- Egitasmo hauetako kanpainen eta euskarrien sortzailea euskalduna izatea albora ezineko baldintza izango da, ideiak eta lanak, sorreratik bertatik, euskarazkoak izan daitezen.

6.3.- Lehiaketara aurkezten den enpresak komunikazio plan honen arduradun eta solaskide izango den pertsona izendatuko du. C1 maila ofizialki egiaztatu ezin denean, pertsona horren eta gainerakoen hizkuntza gaitasuna egiaztatzeaz Euskara Zerbitzua arduratuko da, eta GAI ala EZ GAI diren adieraziko du.

6.4.- Enpresa esleipendunaren ardura izango da langile euskaldunak hautatzea eta edozein aldaketa denean ere ordezkapenak hizkuntza baldintza hauek kontuan hartuta egitea.Baldintza hau bete ezean, bertan behera gera liteke hitzarmena.

7.- EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATZEKO BALDINTZAK

Sortzen diren euskarri eta kanpainek hurrengoa bermatuko dute gutxienez:

a) Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera sexista baztertu egingo dute eta hizkera integratzailea erabiliko dute.
b) Estereotipoak gainditzeko ahalegina egingo dute irudien aukeraketan eta informazioaren trataeran.
c) Bereiziki zainduko dute emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia orekatua, bai edukietan (emakumeei buruz eta emakumeak protagonista diren informazioak emanez) eta baita irudietan ere.

8.- WEB GUNEA, SARE SOZIALAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA

Lehiaketa honetara aurkezten diren proposamenek kontuan izan beharko dituzte, ezinbestean, AGENTZIAKO Euskara Batzordearen web gunea, sare sozialen erabilera eta antolatuko diren ekintza edo ekitaldien ikus-entzunezko estaldura.

9.- DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA LORTZEKO NORA JO

Lehiaketa honetara aurkezteko interesa duten enpresek dokumentu eta tresna hauek izango dituzte eskuragarri AGENTZIAK Oiartzungo Astigarragako bidea, 2-2. solairuan (Mamut eraikina) duen egoitzan, eta sarean.

- 2024ko kudeaketa plana. AGENTZIAKO Euskara Batzordeak lantzen dituen lan-lerroak, bilatzen dituen helburuak eta gauzatzen dituen ekintzak AGENTZIAKO Euskara Sailaren kudeaketa planean aurki daitezke.

- www.oarsoarrak.eus